



TXILLARDEGI

## donostiako "radio nacional"-ean

**G**eroztik gertatu direnak gertatu ondoren, aspaldiko kontua dirudi Donostia-ko «Radio Nacional» delakoan gertatutakoak. Hala ere, sarrera joan den 21-an izan zen; eta gaua komisarian pasa genuen bion jaregitea, joan den igandean izan zen, Otsailaren 22-an alegia. Hala ere, xaharkiturik agertzen zaigu gertakaria; Otsaila honetan ezagutu dugun istori-azkarketa, harrigarria izan delako.

Moldiztegia, inprenta alegia, asmatu zenean, halako urrats nagusi bat eman zuen gizadiak. Inprimatzen ez ziren hizkuntzak (gure Etxeparek ongi somatu zuenez) galtzekotan jarri ziren. Eta, halaz ere, jende gutxiak zekien irakurtzen; eta, hitz batez, bai idazketa bai inprimaketa gutxiengo urri baten eskuetan gelditu ziren luzaz. Baserrietan, kaietan, eskolarik gabeko familietan eta gizaroetan, hizkuntz egoera ez zen funtsean aldatu; eta, hori dela-ta, moldiztegia asmatu ondoren ere, hizkuntzak ez ziren derrepente hil eta suntsitu (edo berehalatik, eta alderantziz, azkartu eta nagusitu).

Telebistarekin, berriz, eta irratiarekin ere gauza bertsua, hizkuntz egoera errotik aldatu da. Telebista hedatu ala (eta irratia noraino hedatu eta herrikoitu den aipatu beharrik ez dago), hizkuntzen arteko egoera aldatu zen kolpez. Eskola eta maisua iristen ez ziren lekuetara (familia, sukaldea, trabena) iritsi baita telebista. Hots, liburuak irakurtzeko kultur-maila minimoa beharrezkoa bazen ere, telebista segitzeko ez da horrelakorik behar. Hitz batez, jauzi berri bat egina-razi du telebistak (eta, noski, eta beti bezala, gauza bera irratiak); eta telebista (edo, hein batez bederen, irratia) izan ala ez izan galderari, ondorio ezin larriagoak dituen erantzuna dagokio. TELEBISTA ALA HIL esan bide daiteke, hizkuntzaren mailan.

**A**ldizkariak izatea, baina telebistatik ez izatea, labanak izatea baina metralletarik ez izatea bezala da. Komunikabide horiek ez dira gonbaragarriak. Horregatik diogu: telebistatik gabe (eta, bide beretik, irratiatik gabe) euskarak ez

dauka bizitzetik. Telebista ukatzen zaion hizkuntza, hiltzera kondenatua da. Gaur euskara hiltzera kondenatua da.

Honetaz jabeturik, eta Gales-en hartu duten bide bera hartuz, IRRATI-BULEGO batetara joatea erabaki zuen «Euskal Herrian Euskaraz»ek. Eta zein bulego erabakitzeke, neurri bakar hau hautatu genuen: ZEINEK egiten du gutxienean euskaraz? Eta gure ikerketaren ondorioz hau ikusi genuen: «Radio Nacional de España» delakoa zela erdaltzaleena. Eta horregatik, eta ez besterengatik (% 99'6 gaztelaniaz ari), hara joatea pentsatu genuen.

Joan gara horretara larunbatean 65 bat lagun; eta, inolako bortxakeriarik gabe, azkeneko estaian dauden estudioetara allegatu. Zuzendaria ez zegoen, eta berorren ordekoari azaldu genion geure asmoa: «mass media» delakoetan euskarak (hizkuntza «ofiziala» omen) jasaten duen bazterketa lotsagarria salatzen duen Agiri bat irakurri nahi genuela, eta hura eginda joango ginela.

Gasteiz-tik ematen ari ziren solasmultzoa bukatu arte itzaroteko eskatu zigun Zuzendari-Ordeak; eta, argia berde jartzean, irakurtzen hasteko. Hala egin genuen; eta beste zenbait zifra eta gogoeta eman ondoren, irten egin ginen. Portalera abiatu ginen, beraz; eta han polizia topatu. Ekintzaren erantzule nor zen galdetu ziguten, eta Luis Mari Mugika eta honen izenpetzailea eraman zituzten Komisarira. Irratian sartu zirenak ere, gurekin bat eginda, Gobernura eraman zituzten. Eta azken hauek, izenak hartu ondoren, kalera.

Lehendabizi Komisarian egin genuen geure deklarazioa, erdaraz, eta Castellsen aurrean. Eta gauean kalabozotara; katxeo osoa egin ondoren, jakina, eta legea denez.

Biharamunean Juezarengana eraman gintuzten. Honek, katalana, ongi ulertzen zuen gure nahia; baina itzultzaile-rik ez zeukan. Gure deklarazioa izkribuz eta euskaraz egiteko aukera eman zigun, eta nik ontzat eman nuen proposamena; eta euskaraz idatzi nuen neure deklarazioa. Mugikak berriz ezetz, eta berak ahoz eta euskaraz egiteko eskubidea zeukala. Igande hartan, ordea, eta hamabietan, itzultzaile-rik non aurkituko? «Euskal Herrian Euskaraz» taldeko nor-

bait itzultzaile izatea proposatu zigun Juezak; baina gure lagunek ez zuten lan hori beren gain hartu nahi izan. Itzultzaile ofizialak (Donostiako Udaletxe-koak bereziki) ezin topa. Eta, besterik ezean, Ramon Labaien harrapatu zuten kanpoan zeudenek. Ia gertu zegoen itzultzaile lana egiteko; eta Kultur Kontseilariak baietz erantzun zuen. Bere lana egin zuen, eta Juezak askatu egin gintuen. Arte hartan, dena dela, Mugikak latinez hitz egin zion Juezari («ego loquor vasconice vel latine», edo horrelako zerbait); beti ere euskaraz hitz egiteko bere eskubidea azpimarratuz. Jueza, nolana ere, ezin etorkorrago egon zen gurekin. Eta Gobernuan eman zitzaigun tratamendua, zibilizatua izan zen, eta batere bortxakeriarik gabea.

**O**rain Antton Ibaguren abokatuak hartu du bere gain gure auzia; eta geroko asteotan jakingo da zer gertatu den. Gure helburua, dena dela, ez zen Juezaren aurrean euskaraz egitea; Euskadiko Irratietan euskaraz benetan hitz egiten hastea baizik. Kate bat euskara hutsez oraindik ezinezkoa bada; gutxienez, eta Gipuzkoari dago-kionez, % 48 euskaraz; SIADECO-k eman dituen datuen arauerako partiketa eginez.

Egin behar den galdera, halere, hau da: «Junta de Seguridad» delakoa kontsultatua izan al da gure detentzioa egiteko? Bestela esanda: Euskal Gobernuak ba al zekien gu detentituak izango ginela? Erantzuna garrantzitsua da.

Ramon Labaien etortzea oso eskertze-koa da, nahiz itzultzaile gisa etorrria izan; eta ez gure ekintza onestara (edo gaitzestara).

Nolana ere, eta zabaldu diren agiri batzuk ukatuz: gure ekintza ez da sekula indarbidetza izan. Ez estudioetan sartzeko, ez mikrofonoa hartzeko, ez irratiatik irteteko.

Baina, jakina, gure helburua gauza ezaguna da: irrati-tan EUSKARA ERABILTZEA. Hitz onek eta tratu ego-kiak eskertze-koa dira, jakina; baina gaitza EUSKARAREN BAZTERKETA DA. Eta hau konpontzen ez den artean, arazoa ez da konpondu.